

Karkara

karkara.eus

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria · 2018ko ekainaren 22a · 396. zenbakia



Zaintza ofizio

Edadeko oriotarrak zaintzen dituzten etorkinekin juntatu gara, beren iragana eta egungo lanbidea gertutik ezagutzeko.

07

Herrian galdezka
Azoka

19

Gizartea
Alkoholiko Anonimoak

25

Kultura
Soka dantza

28

Hezkuntza
M.Zumeta / X.Gaiton

ZINKU ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatutak
- Sukalde, komunak, etb.
- Erasketak

deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Ander Zinkanegi
667 740 279

garay manufacture

SUKALDEAK PROIEKTUAK ERREFORMAK

www.garay.eus

Olabidea aldea 1 (Errotaberrri industrialdea)
20.800 Zarautz

943 13 31 09

Carpinteria

Joseba Aroztegia

687 683 427

josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOAK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- AROZTEGIA OROKORREAN

Sagasti LEIHOAK

Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzale kalea, 65
20810 Orio

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa • Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com

Gale Bask S.L.

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurrak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitatea

Kale Nagusia, 2 - behea (20810 Orio)
Telf./Fax: 943 134 717
Mugikorak: 638 610 343 / 638 610 349
galebask@hotmail.com

zerbitzu teknikoa 24 ordu

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Gremioen koordinazioa, dekoratzailea
- Zoru erradiatzailea

fontana iturgintza

www.fontaneria-fontana.com

ITURGINTZA • GASA • BEROGAILUAK

fontana iturgintza
Plaza Endaia n°1, 20810 - Orio
fontana-ju@hotmail.es
661 262 828

zingira kanpina

Zatoz gure jatetxe begetarianoa ezagutzera!

Uztaila eta Abuztuan egunero irekia

PLATERAKOGITARTEKOAK KENTZALADAK
RAZIOAKBERTAKOPRODUKTUAK NATURA

Tif: 688 74 40 82

Ondo pasa festaki!

IZARRA ELEKTROGAILUAK

849€ BIAK

AEG labea BPS331120M

AEG plaka ICB63302FB

UDAKO ESKAINTZAK

199€ SAMSUNG Galaxy J7

35€ SAMSUNG NASITA

225€ SAMSUNG Galaxy Tab

780€ KONBI KGN36XI 4P A+++ BOSCH

39€ KAPSHILAK OPARI

Eusko Gudari, 44 • Telf. 943 83 38 81 • 20810 Orio (Gipuzkoa)

396

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.eus

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Erredaktore burua
Ainara Lasa

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Olatz Artola
Iñigo Exposito
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Miriam Garcia
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkuadun

Publizitatea

Sonia Albizu

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Aitor Arregi
Egoitz Dorronsoro
Iñaki Iturain
Jabier Zabaleta

Diseinua

Saioa Perona

Banatzailleak

Endika Ruiz (Orioko)
Eli Irureta (Aiako)
Patxi Bravo (Orioko)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Orioko)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berrieman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK:



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Aitor Arregiri jarri dio puntua Ainhoa Mateosek: *Aia aldean bada, makina bat ekintza*. Hurrengoari ere jarri dio bertsotarako gaia.

PUNTUA JARRITA

AITOR ARREGI (DOINUA PASAIAKO PLAZATIK:)

1

Aia aldean bada makina ekintza,
ta horrek eskatzen du
makina langintza.
Uztarturik gazteen
ta zaharren jakintza,
horrela ulertzen det,
zer dan herrigintza.

2

Batzuk festa izateko,
besteak lanera.
Borondatia inoiz
ez baita galera,
lagundu dezakegu
zama arintzera.
Guztiok elkarturik,
herriago gera.



Aiako igoera



Akelarrearen kontzertua

Hurrengo bertsolaria:

Asier Lizarralde

Puntua:

Errepidean ba ote dugu
guztionezako tokia.

Plazaren peatonalizazioaz

Aurreko legealdian Topagune Berdean parte hartu zuten lagunei gai honetaz egin duten lana eskertu nahi diegu.

Bizkortasunez heldu zioten erronkari eta, Udalak ez bezala, herritarren iritziak jasotzeko inkesta bat antolatu zuten. Inkesta hartan herritarrek emandako iritziek eragina izan dute Udalaren azken erabakian.

• **Orioko EH Bildu.**

Alkoholaren aurkako borrokan, indarrak batuz

Alkoholiko Anonimoak elkartearen Hondartza taldeak 55 urte bete ditu ekaina hasieran.

Alkoholarekin arazoak dituzten herritarrei laguntza eskaintzen diegu. Horretarako, astero biltzen gara, Langako plazako 16. zenbakian, taldean hitz egiteko. Zehazki, asteartero, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Hondartza taldearen atek zabalik ditugu beharra duten guztientzat.

Alkoholiko Anonimoetan ikasi dugu alkoholismoa gaixotasuna dela, eta hala onartua du Munduko Osasun Erakundeak ere. Fisikoki eta mentalki eragiten digu gaixotasunak, eta horregatik, alkoholik gabe bizi behar dugu, geure buruak eta ingurukoak ez kaltetzeko.

Horregatik, lanean jarraitzeko asmoa dugu. Idatzi honen bitartez, jakinarazi nahi dizuegu, datorren ekainaren 29an, ostiralean, Zarauzko Antoniano aretoan hitzaldi bat antolatu dugula. Gaixotasun hori hainbat ikuspegitatik azalduko dute zenbait lagunek.

Zehazki, Alkoholiko Anonimoak elkarteko kideek, Al-Anon elkarteko kideek (gaixoen senitartekoen elkar-tea) eta Libe Intxauspe psikiatrak hitz egingo dute.

Ekitaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da. Guztiak gonbidatuta zaudete. • **Alkoholiko Anonimoen elkarteko Hondartza Taldea.**

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erre-dakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-ekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

2.019 arrazoi, gure etorkizuna erabakitzeko!

Eta gehiago. Baina Gasteizko Legebiltzarrean aurkeztu zirenak kopuru hori ematen dute.

Arrazoiak arrazoi, ekainaren 10ean, eskubideak gauzatzeko eta etorkizuna geureganatzeko eskua eman genion elkarri.

Erronka ez zen txikia, ezta erraza ere: Agiñatik Orioko Gaztetxerako kilometroak koordinatzea, Hernanikoekin batera; Gaztetxetik Oribartzar hondartzarako bi kilometroak osatzea, Orioko eta Aiako herritarrekin; eta Oribartzarretik Zarauzko kanpinera arteko kilometroetan laguntza ematea oiartzuarrei. Eguerdia lagun eta 1.085 oriotarren eta aiarren bultzadari esker, etorkizuna gure egiteko beste pauso bat eman dugu.

Eskerrik asko guztioi. Jarrai dezagun pausoak ematen.

• **Orioko Gure Esku Dago.**

Zaborren tasa

Establezimenduei kobratzen zaigun zaborren kuota nabarmen igo da azken hilabeteetan, gaikako bilketa sistema berria martxan jarri zenetik, hain zuzen.

Adibide gisa, bi faktura parez pare jarrita, argi ikusten da igoera

azpimarragarria izan dela: 2017ko azaroaren 23an 117 eurokoa izan zen guztizko kopurua. Hurrengo hiruhilekoan, sistema berriaren inplementazioaren ondoren, 138 euro ordaindu genituen.

Dendariok gero eta gehiago birziklatzen dugu, birziklapenarekin gero eta kontzientziatuago gaude, eta tasak igotzen jarraitzen dute?

Zerbitzua garestiagoa iruditzen zaigu, eta gastu gehiago suposatzen digu herriko negozio txikiei.

• **Jose Manuel Gozategi.**

Gozategi frutadenda

Eskertza Ardatzatik

Bezera estimatua:

Eskutitz honen bitartez, ekainaren 15ean Ardatza itxi nuela jakinarazi nahi dizut.

Lehenik eta behin, urte guzti hauetan zehar nigan jarritako konfiantza eskertu nahi dizut; aurrerantzean, nire dendaren eta zerbitzua-oren oroitzapen ona izatea nahiko nuke. Nire partetik esan, zurekin lan egitea eta nire zerbitzuak ilusioz, profesionaltasunez eta alaitasunez eskaintzea plazera izan dela jakinarazi nahi dizut. Eskerrik asko zure konfiantzagatik.

Adeitasunez.

• **Cristina Salsamendi.** Ardatza

Uztailean ez da KARKARA argitaratuko

Datorren uztailean, ez da KARKARAREN papereko edizioa argitaratuko. Datorren zenbakia, beraz, abuztuko izango da. Zehazki, abuztuaren 31ean argitaratuko da 397 zenbakia. Uztailean zehar, webean eta sare sozialetan emango da Aiako eta Orioko albisteen berri.

■ JAIOTAKOAK

- Jakes Gartzia Beldarrain, apirilaren 29an.
- Izar Aranzabal Padrones, ekainaren 8an.

■ EZKONDUTAKOAK

- Carmelo Brion Perez eta Onintza Manterola Iturbe, maiatzaren 5ean.
- Xabier Rodriguez Romera eta Maria Rosa Gonzalez Martinez, maiatzaren 25ean.

■ HILDAKOAK

- Esteban Moreno Nuevo, Orion, maiatzaren 20ean, 65 urte.
- Jose Francisco Rezabal Iruretagoiena, Aian, ekainaren 5ean, 90 urte.

Eskela edo gogoangarriren bat KARKARAN jarri nahi izanez gero, deitu gure telefonora:

943 83 15 27

OREKA FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgiak
Artrosia
Zefaleak ...

Masaje terapeutikoa,
bentosak, akupuntura,
eskuzko terapia,
osteopatia

943 13 35 37
Aritzaga kalea, 11 behea

Garbiñe Arregi

Moda eta osagarriak

Herriko plaza, 5
635 706 265

jaiegunetan goizez zabalik!

Ile apaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

ttipi

ttapa

943259695
ttipittapa.oihane@gmail.com
Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orio

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA **GELATTO**

OGI BERRI

943 578 176
Herriko enparantzan

lzozki naturalak Opilak



Herritar asko juntatu zen Orio AEren Garagardo azokan. KARKARA



Danbolin musika eskolako ikasleak, Danbolinfest jaialdian. KARKARA



Estropalariak gogotsu astindu zuten ETE bandera. JM OLASAGASTI

ETE

“Garagardo azoka, Danbolinfest, Akelarreren kontzertua, eta aipatu gabe utzitakoak...”

Zenbat ekitaldi maiatzean eta ekainean? Erredakzioan nahikoa lan, guztien berri ematera iristeko; kultur ekitaldien *sereno* edo kale editore baten beharra aldarrikatzen dugu kazetariok. Pentsatzen jarrita, ardura handiko postua litzateke: egun eta ordu berean gertu samar bi ekitaldi egiteko proposamena jasotakoan, bat edo bestea hautatu beharko luke. *Zuena bai, zuena ez, gauza gehiegi ez dira komeni!* Maiatzean eta ekainean lana pilatuko litzaioke Orion eta Aian. Zenbat ekitaldi kilometro koadro txikian, hau da kirol eta kultur ekitaldiak antolatu beharra: Garagardo azoka, Danbolinfest, Akelarreren kontzertua, eta aipatu gabe utzitakoak...

Aian pasa da rallya eta Orion olatu gainean hasi dugu ekaina. Txalupak lehen estropadan bandera irabaztea ez da seinale txarra izaten. Emakumezko traineruak trapua ekarri zuen pasa den igandean: ETE Liga berriko lehen bandera. Historia txikia idazten jarraitzen dugu, hortaz. Hori bai, galdera: zeinek asmatzen ditu izenak? Zergatik ETE? Argazkia imajinatzen ari gara, Nadeth Agirre bandera eskuan behatza altxatuta, *mi casa* esanez.

Nadeth Agirre beste ontzi baten patroli ere arituko da: EUSKARALDIAREN trainerua martxan da Orion. Euskararena ez da, ordea, lehorretik, begira eta txaloka jarduteko estropada izango; hamasei urtetik gorako oriotarrok *ahobizi* edo *belarriprest* izateko aukera izango dugu. Izen horiek ere zeinek asmatu ditu? *Serenoak* burua altxako balu!



Zer iritzi duzu ostegunetako azokaz?



“Hilda dago. Hiru urtetik hona itzaltzen joan da”

Zumarragatik etortzen gara ostegunero produktuak saltzera. Orain dela hiru urte hasi nintzen etortzen; lehen askoz jende gehiago gerturatzen zen azokara. Oso itzalia dago merkatua orain; goizeko 11:00ak arte ez da ia inor egoten.

Lehen izugarri gustatzen zitzaidan azoka hau, giro itzela egoten zelako, eta gustura etortzen nintzen. Orain, gogoz kontra hurbiltzen naiz askotan.

Egia da aurten ez duela eguraldiak lagundu, horregatik adineko pertsona asko etxean geratzen da.

Miriam Egea



“Kalitate oneko haragia eta bakailaoa daude”

Ez naiz astero etortzen, baina noizean behin, azokak erakarrira, etxetik atera eta bueltatxo bat ematen dut bertan, giroaz gozatu eta prezio onean dauden garaiko produktuak erosteko.

Esaterako, haragia eta bakailaoa oso kalitate onekoak dira, eta bi postu horiek azokara etortzen direntan, erosketa egiten dut.

Arropa ere noizean behin erosten dut, etxerako jantziak, zapatilak... Denda handietan baino, nahiago dut hemen erosi. 30 bat urte badira azokara etortzen naizela.

Mari Jose Hernandez



“Tradizio bihurtu da ostegunetako azoka”

Hamabi urte daramatzat merkatura etortzen. Jende gaztea ez da animatzen azokara. Egia da ama asko etorri ohi direla seme-alabekin karga eramaten laguntzeko, baino beren kabuz ez dira etortzen.

Gazteriak ez du ikusten eta baliolan jartzen bertan eros daitezkeen tokiko produktuen kalitatea. Dena eginda ematen zaie gaur egun. Markak gustatzen zaizkie bakarrik, ez dute beste ezertan erreparatzen.

Orokorrean giro ona izaten da azokan, urte asko daramatza herrian, tradizio bihurtu da.

Francisco Diez





ZERBITZU BERRIA
Bizikletak jaso eta etxera eraman
Zarautz-Getala-Orio

943 835 980

Zarautzea Mugitzen gara
Iturrilun plaza,5 - 20800 Zarautz
www.2gurpil.com - bigurpil@hotmail.com



EKILORE GARBIKETAK

626417841
ekilore@outlook.es



ELEKTRIZITATEA
Ander Exposito
943 831 774
600 856 728
anderexpoelektrizitatea@gmail.com




Tf: 943 130 438




Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net



Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascerrajeros@yahoo.es
20810 ORIO

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

MENDIZABAL AROZTEGIA
Neurriko armairuak eta egurlanak

943 831 175 Altxeri bidea
645 708 491 Beti-Alai etxea
mendi@arotzgi.net 20810 Aia-Orio



Zaragueta Herri Eskola (orio)

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

ZUR EDER
muebles tapicería altzariak

zureder@zureder.com
943 13 49 21
Polígono Ubegun Nº 1, Puerta 8
20810, Aia-Orio

AUKERA! 50%
- ERAINOKO DESKONTUA KOLTZOIETAN




Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com



Festak direla eta



Egoitz Dorronsoro

Bisiguaren festan diru publikoa xahutzeak, San Pedro eta San Nikolas festetan eragina du, "festetan ez dago merezi duen ezer!" bezalako esaldien sorburu baita

Festen atarian egonik, azken urteotan alde batera utzi den eztabaida ekarri nahi dut gogora: Bisiguaren Eguna. Itxura denez, herrian sustraitu den festa bada ere, bada zer pentsatu edo hausnartua. Azken urteetako udal aurrekontuei begiratuz gero, sanpedrotan 35.000 €, San Nikolasetan 40.000€ eta Bisiguaren Egunean 60.000 mila euro gastatzen dira, nahiz eta 2018an zifra 39.500 eurora jaitsi.

Herrian galdua den produktu baten jaia antolatzeko, ia herriko festak batera adina diru gastatzen da. Bi festak batera baino egun eta ekintza gutxiagorekin. Gainera, otorduak mugatuak dira, bai jende kopuruz eta aurrekontuz; jatera joateko, hatzarekin gonbidatuak izan ezean, 45 euro ordaindu behar baitira. Ondorioz ez da herritar orok parte hartzeko festa, klasista da. Besteen artean, ikasleek (tartean gurasoen paga ona ez bada) ezin dute joan, ezta langabetu zein pentsiodun arruntek. Eta guzti hau, lehendik ere beraien jantokiak betetzeko arazorik ez dituzten herriko erretegi ezagunen sona areagotzeko.

Bisiguaren Festan diru publikoa xahutzeak, San Pedro eta San Nikolas festetan eragina du, *festetan ez dago me-*

rezi duen ezer! bezalako esaldien sorburu baita. Herritarren mugimendu eskasa ahaztu ezina den arren, Udalak badu bere ardura. Diru kopuru horrekin, egunero kantu berberak entzuteko, gauero berbena eskasak ekartzeaz haratago, ezer gutxi egin daiteke.

Gainera, Udala leku onean geratzea ekarri duten ekintza gehienak, herriko eragile ezberdinen ideietatik eta lanetik sortu dira. Hala ere, udaletxeak ez ditu boluntario hauek zaindu, aprobetxatu egin da, herritarrak haserretu eta erre diren arte.

Herritarrok ere merezi dugu errieta: soilik dirua behar dugunean txosnetan parte hartzea ez baita herritik herrientzako filosofia. Alderantziz, dirurik behar ezean ere, txosnetan parte hartu eta behar gehiago duten eragileei dirua ematea da filosofia.

Jarrera desegokia da ere, Udalak emandako diruaren zati bat afariak egiteko erabiltzea, herri bazkaria antolatzen duenak bere otordua ordaindu behar duenean. Baina lasai, egunen batean herritarrak kexatu eta antolatuz gero, Udalak %1,6 igoko ditu jaien aurrekontuak eta guztiok pozik! (Oharra: ironia da).


Zarautz

Hileta Zerbitzuak

- > Hilerrien kudeaketa
- > Hileta zerbitzu orokorrak
- > Zerbitzu iraunkorra


Harrespil

Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



edariategia
ANTILLA
jateketa

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

arkaitz taberna
... urio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

ARISTERRAZU
jateketa

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

PIZZERIA
KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

Gabon
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

ASADOR XIXARIO

Eusko Gudarien Kalea, 2
Tel. 943 830 019 - ORIO

KOLON TXIKI
edariategia
jateketa

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

ITZALA

kartetan jokatzeko aproposo

tel. 943 83 12 59

HAIZE BERRI
taberna-jateketa-kafetegia

Plater konbinatuak, bokatak, hanburgesak, razioak, eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!
943 831 623
Orioko kiroldegian, Erribera 1

Ostiraletan pintxo potea!!
Gozetan txita

ETXEKO BEREZITASUNAK
ARRAIN ZOPA
PARRILA

BODEGON SARASUA
ERRETEGIA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia. Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

niko
taberna

Karta · Pintxo tradizionalak
Okindegia

Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27

Portu
ERRETEGIA

Santio Erreka Auzoa, 2/g
943 89 44 34
20809 AIA-ORIO

kazolita, laserriko oilaska, parrilako erretiak, eguneko menua...

BODEGAS Gailur

01307 BAYOS de EBRO
Tel./Fax 945 60 91 58
www.bodegasgailur.com
Arabar Enrixa

ZUDUGARAI

Getariako Txakolina

Tel. 943 83 03 80
Fax 943 83 59 52
bzakolizudugarai@euskalnet.net
www.bzakolizudugarai.com



Jokoan da pilota Orion



Ibon Aranalde

Gure pilotalekua ez da oraingo beharretara egokitzen. Alderdi politikoek gai honi heldu eta irtenbide bat eman behar diote.

Orioko pilotaz hitz egiten hastean, historiari inbidia handiz begiratzen diodala konturatzen naiz. Nola ahaztu gure herriak eman dituen garai oparoetako erremontista handi, palista bikain eta eskupilotari sonatuez? Itsasoko kresalak indar handia izanik, Oriok, Zumaiak, Bermeok eta kostaldeko beste herri batzuk bezala, beti izan du pilotarekin lotura handia.

Orio eta Aiako pilotariok partidu mordo bat jokatu izan ditugu han eta hemen, oso maila txukunean, baina ia gehienetan beste herri bateko pilota elkarteak ordezkatuz aritu izan gara. Eskolan piztutako arra handi bihurtzen zen herriko sanpedroetako txapelketa iristen izenean.

Gipuzkoan badira hainbat elkarte, herrian beste kirolen aukera zabala izanagatik ere, gure gurea den kirol hau osasuntsu mantentzea lortzen ari direnak. Horiek egiten ari diren lan honen fruitu dira azkenaldian profesional mailan hainbeste entzuten ditugun Jokin Altuna, Iker Irribarria, Beñat Rezusta eta Ander Imaz pilotari gipuzkoarrak, esaterako. Elkarte horiek dira gure erreferente. Ezin aipatu gabe utzi hobetzeko bide honetan bere beharra dugun, baina gauzak batere errazten ez dizkigun bidelaguna: gure pilotalekua. Erakargarri ez dagoen eta oraingo beharretara egokitzen ez den eremu zaharkitu batean, bertan praktikatzen den kirola erakargarri egitea ez da erronka makala alajaina! Alderdi politikoek gai honi heldu eta irtenbide bat eman behar diote, ezin dugu luzaroan honela jarraitu. Eguraldi txarra deanean, aurrez antolatutako ekintzen *bizitza salbatzaile* den eremu soil bezain garrantzitsu izatea baino askoz gehiago da pilotalekua, eta hori erakutsi nahi diogu herriari.

Orioko pilota suspertzeko etorkizuneko pilotariak ezinbestekoak zaizkigu. Bestetik, orain dela urte gutxi arte, neskek pilotan lehiatzen jarraitzeko paletara jo behar izaten zuten, baina orain sona handia hartzen ari da nesken eskupilota ere, eta garbi uzten ari dira ikuskizun aparta eman dezaketela. Orioko Pilota Elkarteak apustu garbia egiten ari da nesken pilota bultzatzeko, herriko jaietan haien partaidetza ahalbidetuz, besteak beste. Honez gain, denboraldi osoan zehar asteburu askotan elkarteko pilotarien esku zein gomazko paletako partidak izan dira ikusgai. San Pedrota jaien barruan, uztailean Ilean, haur zein nagusi, mutil zein neska, esku zein paletako pilota jaialdia antolatua dugu! Animatu eta hurbildu pilotaz gozatzera!



Iñigo Gaiton

Auto-engainu konstantean

Emendik gutxira, urte edo agintaldi bakan batzuk barru, Orion, agian, handiagoa izango da edadekoen ongizateaz arduratuko den etorkinen zenbatekoa, garai bateko arrantzale kopurua baino. Bizitzan zehar, gizakiak etengabe engainatzen du bere burua, komeni zaionaren arabera; ginenaren, garenaren eta izan nahiko genukeenaren arteko oreka jokoan ahitzen ditugu egunak maiz. Gu herri arrantzalea gara oraindik, jakina.

Oscarrek estropadekin asko gozatzeko duela aitortu zidan, aldizkari honetako erreportajerako egindako elkarrizketan; badakiela, nolabait, oriotarron emozio kolektiboaren parte sentitzen eta horren zaporea dastatzen. Claudiak KARKARA irakurtzen duela esanez harritu ninduen. *Google translate* erabiliz itzultzen ditu hitz solteak eta esaldiak. Bizitzari gutxi eskatzen diolako-edo, konforme antzean bizi omen da Marina, astelehenetik ostiralera egunean 22 orduz lan egin arren.

Gehiago edo gutxiago, hiru zain-tzaileak gustura bizi dira Orion; nik, inguruko askok bezala, sinistu egiten diet hori. Nire komenientziarako, ziurrenik.



Adineko oriotarren zaintza lanbide

Ez da erraza elkarrizketatu ditugun etorkinen egoera azaltzea; jaioterria atzean laga ostean, baldintza gogorretan egiten dute lan hemen, baina beren adierazpenetan, berehala antzeman daiteke gauzak ondo eta errespetuz egiteko duten gogoia. Gertutik ezagutu dugu **etorkizun hobearen bila Oriora etorri diren** lagunen bizimodua.

TESTUA: I. GAITON
ARGAZKIAK: I. GAITON

Elkarrizketatuen jarrera atseginak eta hizkera alaiak, pertzepzio okerra eman dakiok hemen jaiotako irakurleari. Orion ondo bizi direla esan digute lau lagunek, gustura. Jatorrizko herrialdeetan etorkizun beltza aurreikusten zutelako etorri ziren hona, familiako kideak, betiko adiskideak eta umetako ametsak han lagata. Hala ere, haustura afektibo horrek eta dituzten lan baldintza gogorrek ez die zapuztu etorkizuna ilusioz eraikitzen jarraitzeko kemena.

Guztiek adinean gora doazen pertsonak zaintzen egiten dute lan. Bik, Oscarrek eta Marinak, badakite zer den etxeko barne zaintzaile izatea: egunean 22 orduz, astelehenetik ostiralera, zainduaren beharrez arduratzea, 800 edo 900 euro inguruko soldataren truke (kasu batzuetan, kontraturik gabe). Dena den, batek aitortu digun bezala, bada 22 orduko lan eguna baino latzagorik dirua behar duenarentzat: lanik ez izatea.

Hemengo gizartearen bizi itxaropena haztearekin batera, edadeko pertsonak zaintzetik bizi den etorkin kopurua nabarmen igo da gurean. Euskal Herriko etxeetan, 10.000 barne zaintzaile baino gehiagok egiten dute lan gaur egun. Silvia Carrizok martxoan Gipuzkoako Hitzari

adierazitakoaren arabera, *langileon lan baldintzak onartezinak dira bere burua ongizate estatu gisa definitzen duen herrialde batean*. Zumaian emakume etorkinei harrera egiteko xedearekin zabaldu zuten Malen Etxearen sortzaileetako bat da argentinarra.

Oscar

Euskarazko hitz eta esamoldeak ikasteko ahalegin handia egiten du Oscarrek, edadeko pertsonekin elkar hobeto ulertzeko. Bere hitzetan, lan gogorra da etxeko zaintzailearena, *tartean, besteak beste, emozioak daudelako. Nahi gabe, denborarekin, zaindua maitatzen duzu, eta bere ezina norberak ere sufritzen du*. Lan egin duen etxeetako familiek, orokorrean, ondo tratatu dutela dio. *Baloratua gehiagotan sentitu naiz, baztertua baino, nabarmendu du*.

1965an jaio zen Oscar Hernan, Kolonbiako Buga hirian. Sei urteren ostean, aurtengo neguan bi hilabete pasa ditu jaioterrian, eta kosta egin zaio Oriora itzultzea, hemen ondo integratua sentitzen den arren; bost anai-arreba eta ama laga zituen han. Haurtzaro zoriontsua izan zuen kolonbiarrak, eta familia xumekoa izan arren, ez zitzaion ezer falta izan. *Beno, bai, unibertsitateko ikasketak ordaintzeko dirua*, dio. Adimena soberan zuten etxean.



Oscarrek erizain laguntzaile ikasketak egin zituen gaztetan. Opor garaian, kotoia biltzen eta igeltsero lanetan irabazten zituen sosak. Urte luzez paper fabrika bateko langilea izan ostean, langabezian geratu eta hona etortzeko apustua egin zuen: *Bizitzan erabakiak hartu behar dira. Arriskatu gabe, ez dago irabazterik*. Etorkin askok bezala, hemengo jendeak nahi ez dituen lanpostuak baliatuz bizitzan aurrera egiteko aukera ikusi zuela dio.

Kolonbiarrak gustuko du zaintzaile lana, asko ematen dio bueltan: *Apenas hitzik egiten ez zuen adineko gizon batek, lagun ona nintzela aitortu zidan behin*. Bere hitzetan, *pertsona duintzen duen lana da gurea*. Hala ere, gogorra dela aitortu du, soldata duin samarra izatera iristeko ordu asko ematen dituztelako lanean. Etorkizunean, ospitalean lan egitea gustatuko litzaioke, baina ez du horretan gehiegi pentsatzen: *Bizitzak buelta asko ematen ditu, hori ikasi dut urtez urte. Oraina bete-betean bizitzen saiatzen naiz, etorkizunean gehiegi pentsatu gabe sufrimendu asko aurrezten delako*.

Jorge Duque topatu dugu kalean lanean. 71 urterekin, edadeko pertsonak zaintzen jarraitzen du, orduka. Oscarren osaba da, eta berak eman zion ilobari Oriora etortzeko ideia, berarentzat, *herria paradisu txikia* delako.

Jorgek bederatzi anai-arreba zituen, eta zorionez balore onak jaso zituzten txikitan gurasoengandik. Bere hitzetan, balore horiek makulu hartuta egin du lekua Orion; besteak beste, oraintxe jaso berri du Esperientzia eskolako diploma. *Oso gustura joaten naiz ikastera, asko gozatzten dut*, dio. Lauzpabost hitz egin ostean, Oscar Jorgerekin laga eta biak agurtu ditugu.

Marina

Ekaina hasierako bero hezeak, jaioterria dakarkio gogora Marinari (asmatutako izena). Benetako datuak ez argitaratzeko eskatu du, oraindik legezko dokumenturik ez duelako. Bereak dira argazkiko eskuak.

Etorkin batek hiru urte pasa behar izaten ditu hemen egoera ilegalean, paperak erregulatzeko prozesu burokratikoak martxan jarri aurretik. Marina 2015eko azaroan iritsi zen Euskal Herrira, eta gaurdaino, ziurgabetasun handiarekin pasa ditu egun asko. *"Bizitza aurrera ateratzeko helburuarekin lanera etorri denarentzat, ahalegin ikaragarria eginda, gogorra da egoera ilegalean bizitzea. Pentsamendu negatibo asko etortzen zaizkizu burura, azaldu du*.

Lanean pilatutako estresa arintzeko korrika zebilen





batean, ertzainek gelditu eta Zarauzko polizia-etxera eramane zuten: *Ondo tratatu ninduten, baina oso urduri jarri nintzen. Ezin nituen azalpenak nahi bezala eman, eskuak etengabe izerditzen zitzaizkidan. Ahizpa etorri eta hark atera ninduen, bere gain nengoela argudiatuz.*

Marina Nikaragua barnealdeko herrirka txiki batean jaio zen. Han, Lehen hezkuntzako irakaslea izan zen hamalau urtez: *Nekazaritza giroan bizi izan naiz betidanik, inguru nahikoa txiroan. Pentsa, ur garbia baldeekin garraiatzen genuen, buru gainean hartuta. Seme-alabak hiriburuko medikuarengana eramateko, goizaldeko ordu-bietan jaikitzen ginen, eta iluntzean itzuli. Bizpahiru ordu egin behar izaten genituen oinez edo zaldiz, gero autobusa hartzeko. Ez nuen hura nahi berentzat.*

38 urterekin hona etortzea erabaki zuen, dirua aurreztu eta seme-alabei etorkizun hobea eskaintzeko esperantzarekin. Bidaian zehar bihotza txikituta ekarri zuen. *Hegazkinez bidaiatu nuen lehen aldia izan zen. Tontotuta etorri nintzen, burua joanda, pena eta min izugarriarekin, seme-alabak eta senarra han utzita.* Orduan, ez zekien noiz suertatuko zitzaion berriz familiarekin elkartzeko aukera. Seme-alabekiko eta senarrarekiko banaketak, eta hemen topatuko zuen panoramaren inguruko ezjakintasunak, barrena jan zion hegazkineko bidaian zehar.

“Marinak bihotza txikituta ekarri zuen hona etortzeko bidaian zehar.”

10.000

Ettxeko barne zaintzaileak.

Silvia Carrizok Gipuzkoako Hitzari adierazitakoaren arabera, Euskal Herriko etxeetan 10.000 barne zaintzailek baino gehiagok egiten dute lan gaur egun.



"Krisiaren ondorioz hemengo egoera zaila zela jakin arren, Claudiak saiakera egitea erabaki zuen."

Hemen bi urtez dirua aurrezten egon ostean, hiruren hegazkin txartelak ordaindu zituen. Ondoan ditu orain. Etorri zenetik, Marina barne zaintzaile gisa aritu da lanean. Aurreneko bi urteak baserri batean eman zituen, bertako amona zaintzeaz gain askotariko nekazaritza lanak egiten. Orain, Orioko pisu batean egiten du lan, eta astelehenetik ostiralera, egunean hogeita bi ordu ematen ditu zainduaren zerbitzura. *Asteburuetan, senarrari laguntzen diot bere lanean*, gehitu du. Libre dituen ordu kondarrak, seme-alabei eta etxeko lanei eskaintzen dizkie. Senarrak eta biak esfortzu ikaragarria egiten dute

zertxobait aurrezteko, *hilean 100 euro-edo*, bere hitzetan. Diru pixka bat pilatutakoan, Nikaraguara itzultzea gustatuko litzaioke, negozio txikiren bat ireki eta diru-premiak ito gabe bizitzen saiatzeko.

Hemen ondo hartua sentitzen da Marina, baina kezka sortzen dio seme-alaben integrazioak: *Eskola eta kirol jardueretan ibiltzen dira hemengo gaztetxoekin, baina kallean zailagoa da. Zer pentsatua ematen dit. Zer egin dezakegu helduok horren aurrean? Nola egin diezaiokegu aurre errealitate horri?* Galdera horiei erantzunak bilatzeaz gain, etorkizunean arrazismoaren aurka lan egiteko aukera izatea gustatuko litzaioke Marinari. Oraingoz, lanak ez dio horretarako tarte handiegirik uzten.

Claudia

Claudia Sarai hondurastarrak, Marinak bezala, alaba txikia laga zuen jaioterrian hona etorri zenean. Izebaren ardurapean geratu zen neska kozkorra. Krisiaren ondorioz hemengo egoera zaila zela jakin arren, 2010ean saiakera egitea erabaki zuen: *Dirua irabazteko premiak ekarri ninduen hona.*

Nerabezaroan pasa zitzaion burutik lehen aldiz, agian, egunen batean, jaioterria utzi beharko zuela. Ordura arte Hondurasen kokatzen zituen etorkizuneko planak. Oina-





rizko heziketa egiteko arazorik ez zuen izan, baina unibertsitaterako sarbidean, zailtasunak sortu zitzaizkion: *Publikoa izan arren, garestia da fakultatean ikastea. Han ez dira existitzen bekak eta halako laguntzak.* Hona etorri zenetik, zaintzaile lanetan aritu da batik bat. *Herrialde berri batera iristean, edozertan lan egiteko borondatea (edo premia) izan ohi da,* argitu du. Egin ahala ikasi zuen ofizio berria.

Claudiak bere eskubideak aldarrikatu izan ditu lanean: *Nire lagunek erotuta nagoela esaten didate, lanean baldintza minimoak exijitzen ditudalako. Langile bezala errespetatzen nazaten saiatzen naiz, ez besterik! Ziurtasunez mintzo da hondurastarra. Ezagutzen ditut eguna kexatzen eta aieneka pasatzen duten etorkinak. Nik ere ikaragarri botatzen dut faltan jaioterria, baina ozen aldarrikatzen dut hemen bizitza berria eraikitzeko eskubidea.* Alaba eta senarrarekin bizi da gaur egun, ondoan ditu Orion.

Etorkizunean, hemen ikusten du bere burua: *Alabak primeran egiten du euskaraz. Hamar urte ditu. Ni, berriz, hondurastarra sentitzen naiz, baina hau da nire errealitatea.* Inguruan joera arrazistak sumatu izan dituela aitortu du Claudiak. Erantzun argia du etorkinak lana kentzera etortzen direla diotenentzat: *Etorri nirekin lanera*

egun oso batez. Nahi duenari lagako diot nire lanpostua, ezetz inork beretzat hartu! Guk, hemengo jendeak nahi ez dituen lanak egiten ditugu.

Prekarietatea nabarmena da zaintzaile gehienek kasuan: *Kontratuak astean 40 ordukoak izan ohi dira, eta etxeetako barne zaintzaileek, egunean 22 ordu ematen dituzte lanean.* Bere hitzetan, kontratuek ez dituzte jasotzen langileen ordu guztiak. Oscarrek bezala, Claudiak aitortzen du zaila dela zainduaren ezinarekin ez sufritzea: *Zaindu nituen lehen bi pertsonak hil egin ziren, eta oso gaizki pasa nuen. Pertsonari estimu handia hartzen diozu.*

Unibertsitaterako sarbidea prestatzen ari da gaur egun hondurastarra, eta enpresa zientzien ikasketak egiteko asmoa du. Oscarrek bezala, bere jaioterrian ezin izan zuen matrikula ordaindu, eta orain, ikasketei berriz ekiteko aukera suertatu zaio; berriro, apustua egingo du, iraganean itxitako ateak irekitzen saiatzen jarraitzeko.

Gaztetxoak sormena lantzen: herriko idazleak

Oroimenaren kutxa

Mendian loreak nola, horrela sortzen dira kultur ekitaldiak Orion maiatzean. Aurten-goan, natura bezain emankorra izan dugu kultura. Eta kultur ekitaldien barruan, literaturak toki pixka bat izan du.

Maiatzaren 11n sari-banaketa izan zen udaletxeko aretoan, haur eta gazte-txoen aurtengo literatur lehiaketarena. Olerki, bertso, ipuin edo marrazkia, horietatik artista oriotarrek sortu eta Udalak saritutako lanak. Maiatzaren 22an, berriz, herriko bi eskoletako lehen hezkuntzako ikasleak bertsoan aritu ziren jende aurrean *Gu ere bertsolari* programaren barruan. Iñaki Gurrutxagak bideratuta, jendez beteta zegoen Ikastolako aretoan.

Maiatzaren 6an herriko plazan jarri zuten artisautza azokaren barruan oso eskaintza bitxia izan zen: mahai batean ipuinak zeuzkan ikusgai eta eskuragai Josu Galdosek, berak idatzi eta editatuak.

Maiatzaren 18an, Zarauzko Udalak antolatutako Salbatore Mitxelena literatur lehiaketaren sariak banatu zituzten. Asier Zubizarreta *Xubi* oriotarrak lehen saria eskuratu zuen *Egia biluzik* olerkiarekin. Gainerako lan sarituekin batera, liburuxka batean plazaratuko da olerkia. Horixe saria, 300 euroez gain. *Xubi*ren poemak gizaritearen kritika egiten du; gazteak agintarien iruzurrei jaurtitako oihu ozena da.

Asierrek, beraz, jaioterriaren mugetatik kanpoko saria bereganatu du. Urte batzuk lehenago, izan ziren hiru

neska Eusko Jaurlaritzaren *Urruzuno* literatur lehiaketa irabazi zutenak: Orioko Ikastolan zebiltzan Nere Manteola, Maialen Sarasua eta Goiuri Unanue.

Nerek *Bizitzeko arrazoia* ipuinarekin irabazi zuen 1991n; eta Paris, Berlin eta Pragaraino eraman zuen bidaia izan zuen sari. Maialenek *Azken itsas bidaia* olerkiarekin, 2001ean. Britainia, Normandia eta Holandara bidaiatu zuen. Eta Goiurik, *Ipuin bat ordubete* ipuinarekin, 2010ean; Galiziara eraman zuen Xabi Paiak gidatutako bidaiak. Idatzitakoa liburuan plazaratzea eta bidaia izan zuten sari hiru neskek.

Herriko liburutegiko arduradun Mirenek armairutxo bat antolatu du liburutegiko apalen ondoan, Orioko idazleen liburuek beren txoko propioa izan dezaten. Herriaren historian ez da idazle askorik izan, baina batzuk bai. Egile horiek honelako izenak dauzkate: Anjel, Jose, Manuel, Fabian, Joakin, Luis, Iñaki, Manu, Ibai, Xabier, Iñaki, Rikardo, Ruben, Iñigo... Neska baten izena ageri da, Loren, beste batekin egindako liburu baten egile. Nahi duenak gai polita du aztertzeko: zergatik diren hiru neska gaztetotan Eusko Jaurlaritzaren saria eskuratu dutenak eta zergatik ez dagoen emakumeak idatzitako alerik herriko idazleen liburuen artean.

Herritarrek irakurtzea eta idazten jakitea ona omen da. Topiko onartua da hori. Baina toki batzuetan horrek gero ez dauka segida logikorik. Literatura ere ekosistema bat da, zaindu eta babestu beharrekoa, ureztatzea eskatzen duena. Ureztatzaile, etxekoez gain, herriak behar du izan, eskolek eta Udalak bereziki.

Igeri egiten ezin da ikasi putzuan murgildu

gabe. Arraunlariak entrenatu egiten dira estropadarako. Idazten ere ezin da ikasi idatzi gabe, eta ondo idazteko entrenatu egin behar da. Entrenatzeko aukera eta modua eman behar zaie gaztetxoei. Karkara izan da gazte askoren trebalekua, idazteko ariketan; eta azken urteotan *Ikasleak idazle* izeneko atala dauka gaztetxoak idaztera bideratzeko. Udalak, berriz, *Euskaraz gazte* literatur lehiaketa antolatzen du urtero helduentzat.

Ikusten, sentitzen eta margotzen dudana da nire aberastasuna. Horixe zioen maiatzean kultur etxean bere margolanak erakutsi dituen Fatiha emakume marokoarrak. Idazleen bidean, bestelako saririk ezean ere, onena idaztean egiten den prozesu sortzailea bizitzea da, hura unez une gozatzea.



Orioko haurrak, udaletxean, literatur lehiaketaren sari banaketan KARKARA

LUXARBE

igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

KAIOA

Arropa
Oinetakoak
Osagarriak

Arrantzale kalea, 8
T 943 244 685
ORIO (Gipuzkoa)

Zigordia kalea, 18
(S.Frantsisko kalearekiko izkina)
T 943 021 634
ZARAUTZ (Gipuzkoa)

Emibera kalea, 10
T 943 543 323
ZUMAIA (Gipuzkoa)

Foru ibilbidea, 2
T 943 282 375
AZPEITIA (Gipuzkoa)

www.kaioa.es

Maidar Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri

PODOLOGIA ZENTROA

f Karela-Kiroldegia-Bpxport @KarelaBPX

Udararekin batera badator UDA SASOIAN!

Hamabostaldia:

1º > UZT 2-13
2º > UZT 16-27
3º > UZT 30-ABU 10

KARELA kiroldegia 943 89 44 28

ITZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa

argine.

15eko deskontua familia ugarien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio
943 134 889 f argine/jantziak

Familia aniztasuna

ROSANA
-ARGAZKI ESTUDIOA-

lorosanaarruti@gmail.com
tel: 943 83 58 45

libe

dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrera Arrantzale kaletik]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

Gure azken San Pedroak hondartzan 2006/2018
Ondo pasa festetan!

JATETXEA Galerna

Antillako Hondartza 5
20810-Orio-Tel.:943 89 04 16

Sinergia

fisioterapia & ikerkuntza

· Lesioak: bihurdurak, tendinitisak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta heduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa. ·

· Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesotaping-o, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioba [GAH], REDCORD ·

943 13 05 77
685 71 85 95

Ibai Ondo 1, Bajo - Orio
sinergiafisioterapia.com

Seguros Bilbao

Telf: 943 111 600
688 714 869

Endaia Enparantza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

Santi Barranco
Orioko ordezkaria

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL - 943 572 083
FAX - 943 571 190
i.aseño@hotmail.es

INES ASENJO
ABESLARI, 1
20810 ORIO



“Oriotar askok lagundu digute alkoholismoari aurre egiten”



Oriotarrak, Alkoholiko Anonimoen sortzaileen erretratuekin.

TESTUA ETA ARGAZKIA: AINARA LASA

KARKARA aldizkariak elkarrizketatu behar gintuela jakitean, iraganean, ardo botila bat edan ezean, ez nintzen galderei erantzuteko gai izango; orain, ordea, ez dut alkoholik behar; pozik nago solasaldi honetan parte hartzeaz. Hala adierazten du Alkoholiko Anonimoak elkartearen Zarauzko Hondartza taldeko erabiltzaile den oriotar batek, hitzordua hasi berritan. KARKARA, bertako kide diren lau oriotarrekin elkartu da, Hondartza taldearen 55. urteurrena dela eta.

Alkoholikoak dira, bai, baina sendagaia aurkitu dute: hil honetan 55 urte bete berri dituen Hondartza taldea. Astartero elkartzen dira, 20:00etan. Topaketa hauek, zulotik atera gaituzte gu guztioi. Ezinbestekoak zaizkigu gure arteko solasaldi hauek; bakoitzak bere kezak, beldurrak, eta sentimenduak azaleratzen ditugu hemen. Ez da inor epaitzen, elkar laguntzeko gaude, eta, noski, pertsonaren anonimatua zaintzea da lehen premisa. Edonorentzat ditugu atek zabalik.

‘Bakarrik, ezin da zulotik atera’

15 eta 20 urte bitartean daramate asteroko saioretan parte hartzen elkarrizketatutako lau oriotarrek. Jokabide-eredu berberak bultzatuta jo zuten Alkoholiko Anonimoetara: Ez genuen onartzen gure gaixotasuna. Alkoholikoa izatea ez da edatea soilik. Pertsona oso sentikorrak, mentalki ahulak eta estima baxuko askok alkoholera jotzen dutela onartzen dute, beren buruko mamuak uxatzeko. Buruko gaixotasun bat da. Eta betirako. Aitorpen gordina, inondik inora. Horregatik da -diote laurek- horren garrantzitsua gure artean elkartzea. Terapiarik onena da guretzat. Oriotar hauen kasuan, senitartekoez, lagunek eta inguru-

rukoek funtsezko papera izan dute arazoari aurre egin eta lehen urratsa emateko garaian. Adituek diotenez, depresioak eta bestelako arazoak ohikoak dira aita-amenengan eta senar-emazteengan. *Hasieran besteei botatzen diezu errua –aitortu du batek–, baina denborarekin oharitzen zara, lagundu nahi zaituztela. Orion babes handia eman digute, eta eskertzekoa da. Arazoa gurea da, eta guk eman behar diogu irtenbidea, berresten du beste batek.*

55 urte, alkoholari aurre eginez

Argi dute lau oriotarrek Alkoholiko Anonimoak elkarte salbamendu-jaka modukoa izan dela eurentzat. *Gizar-teak eta erakunde publikoek estigma modura ikusten dute alkoholismoa, eta jende asko ez da oharitzen gaixotasun sendagaitza dela, kronikoa, beste asko bezala.*

Baina dena ez da txarra. Esperantza badago, baita irtenbidea ere: orain dela 55 urte sortutako Hondartza taldeak bizitza asko salbatu ditu, eta salbatzen jarraitzen du.

Ikusten dituzu hango bi erretratuak? –galdetu dio Hondartzako koordinatzaileak KARKARAko kazetariari–, William Griffith eta Bob Smith dira, Alkoholiko Anonimoak erakundearen sortzaileak.

Badirudi bi estatubatuar horiek, tabernako barran zeudela, alkoholarekin zuten harremanari buruzko kezak partekatu zituztela. Beren sentipenak kanporatzen jardun zuten gau guztia. Taberna ixtean konturatu ziren, solasaldian zehar, ez zutela alkohol tantarik edan. Eta elkarte bat sortzea erabaki zuten: Alkoholiko Anonimoak. 1935. urtea zen. Nazioarteko erakunde hark jada 83 urte ditu, eta Zarauzko bere anaia txikia, Hondartza taldea, bidean da. Oraingoan, 55 dira. Bejondeiela.

HITZALDIA, EKAINAREN 29AN

Alcoholiko Anonimoen Hondartza taldeak hitzaldi bat antolatu du hilaren 29an, ostira-lean. Gaixotasun hori hainbat ikuspegitatik azalduko dute zenbait lagunek.

Hitza hartuko dute Alkoholiko Anonimoen kideek, Al-Anon elkartearen kideek (gaixoen senitartekoen elkarte) eta Libe Intxauspe psikiatrak. Hitzaldia 19:00etan hasiko da, Zarauzko Antoniano aretoan.





Jendetza bildu zuen Akelarrek Aian

Joan den ekainaren 2a egun berezia izan zen Aian. Akelarrek kontzertu antologikoa eskaini zuen, taldeak kuttuna duen plazan. Aiarrek, oriotarrek eta inguruko herrietako jarraitzaileek gogotik gozatu zuten Soraluzeko talde mitikoaren erreperitorio zabala. Irudietan ikusi daitekeenez, musikariek eta zaleek gau ederra pasa zuten.
Argazkiak: Jose Manuel Gozategi





“Gizartea kapitalismoan eta teknozientzian dago antolatua”



Lierni Irizar
Psikoanalista eta idazlea

Hizkuntza, sufrimendua, gaixotasuna, heriotza eta bizitzako beste hainbat arloren banalizatzea du hizpide Lierni Irizarrek argitaratu berri duen azken liburuan. Psikoanalista ogibidez, gizakiaz eta gaur egungo gizartearen eraldaketaz hitz egiten du, besteak beste, bere hirugarren lanean.

TESTUA: AINARA LASA

Orain dela 17 urtetatik bizi da Orion. Gustuko du herria, kostatik gertu bizitzeak eta herriko giroak erakartzen du gehien Lierni Irizar psikoanalista eta idazlea. Joan den maiatzean argitaratu zuen bere hirugarren liburua: *Banalizaciones contemporáneas: lenguaje, sufrimiento, enfermedad y muerte*. Dagoeneko salgai da liburu-dendetan. **Norbanakook bizitzan zehar izaten ditugun gatazkak eta kezkak aztertzen dituzu zure azken lanean.**

Nire hiru liburuetan kezka berbera agertzen dut: gaur egun nola ulertzen dugun gizakia, zer den guretzat garrantzitsua, eta nola artatzen ditugun gizakiaren sufrimenduak, zailtasunak, kezkak, e.a.

Gai hori ikuspegi desberdinetatik hausnartu nahi izan dut. Liburu honetan, hain justu ere, gizarte honetan ematen diren banalizazioen artean, lau aukeratu ditut: hizkuntza, sufrimendua, gaixotasuna eta heriotza; horiek guztiak funtsezkoak dira gizakiarentzat, baina gaur egun balioa galdu dute.

Zergatik galdu dute balioa zure ustez?

Uste dut gaurko gizartea bi diskurtso nagusitan antolatzen dela: kapitalismoaren eta tekno-zientziaren bueltan, hain zuzen. Bi diskurtso horien artean aliantza moduko bat sortu da, eta gizakia zein gizartea inguratzen dituzten gauza guztiak bi paradigma horiek oinarri hartuta neurtzen ditugu. Gaur egungo gizakia neurtzen da modu desberdinetan: erredukzionismo biologikoan (edozeren zergatia azaltzeko faktore biologikoa hartzen da aintzat -esaterako, triste bagaude serotonina gutxi

dugula argudiatzen da soilik); modu kuantitatiboan, hau da, dena neurtu beharra daukagu; eta hezkuntzaren paradigmen baitan, hots, uste dugu gizakiaren zailtasunak eta gatazkak hezkuntzaren ikuspegitik soilik aldatu ditzakegula. Horrek guztiak, finean, erredukzionismo batera eramaten gaitu, gizakia bere osotasunean ulertzeko garaian.

Hizkuntzaren banalizazioa edo ezerestea ere aztertzen duzu liburuan.

Bai. Hizkuntzako animaliak gara, eta gure bizimodu guztia hitzez beteta dago; munduan sartzen gara hitzen bitartez. Horregatik analizatzen dut lan honetan hizkuntzaren ezerestea. Gizakiarentzat funtsezko faktore dena, komunikazio tresna modura bakarrik ulertzen dugu. Eta hizkuntza, hori baino askoz gehiago da; gure gorputzean hitzek eta hizkuntzak eragin zuzena dute, jaso eta jasotzen ez ditugun hitzek moldatzen dute gure gorputza. Hizkuntzak, hitzek... gure subjektibitatea eratzen dute.

Psikoanalistentzat, gizakia, izaki hiztunaz gain, zer da?

Psikoanalisian gizakia definitzen dugu *izaki hiztuna, sexuatua eta mortala* bezala. Hizlaria, hizkuntza delako gure muina; sexua ere gure parte inportantea da; eta mortala, kontziente garelako mortalak garelak, eta horrek gure bizitza baldintzatzen du nolabait. Gure bizitzan ondorioak ditu.

Filosofia eta psikologia uztartzen dituzu liburuan, ezta?

Bai, hain zuzen ere nire helburua da banalizazioa hausnartzea ikuspegi filosofiko batetik abiatuz. Hannah



Lierni Irizar idazlea eta psikoanalista, bere liburu berria eskuetan duela. KARKARako erredakzio kanpoan. AINARA LASA

"Pertsona, maltzurra izatera iritsi daiteke soilik agindu batzuk betetzeagatik. Hori da gaiztakeriaren banalizazioa."

Arendt hartzen dut erreferentziatzat. XX.mendeko filosofo horrek, New Yorkera emigratu zuen gerra garaian eta berriemaile modura Israelera bidaiatu zuen Adolf Eichmann naziaren epaiketaren berri ematera. Arendtek epaiketari antzeman zuen Eichmann nazia ez zela tipo gaiztoa; gizon burokrata zen, besterik ez.

Bere lana modu automatizatu batean egiten zuen, oso ongi betetzen zuen. Hori da gaiztakeriaren edo maltzurkeriaren banalizazioa: norbaitek gauza lazgarriak egin ditzake, soilik agindu batzuk betetzeagatik, eta bere lana ongi burutzeagatik, ondorioetan pentsatu gabe. Hori da

burokrata izatea.

Arendtek banalitate horren ezaugarri batzuk plan-teatu zituen kasu hori aztertuz: gizakiaren azakeria, pentsatzeko ezintasuna; gizartean ematen diren errutina eta protokoloen eragina; hitzaren aurrean babesa, eta ardura pertsonalei uko egitea. Horiek guztiak hartu eta liburuan aipatzen ditudan banalizazioetara eraman ditut, hots, hizkuntzara, sufrimendura, gaixotasunera eta heriotzara.

Nola ikusten dituzu heriotza eta sufrimendua gure gizartean?

Gaur egun gizarteak indibidualizaziora garamatza; uko egiten diogu sufrimenduaren eta heriotzaren aurrean erantzunak bilatzeari.

Zein da liburu honen asmo printzipala?

Nire liburuak, funtsean psikoanalisian oinarrituta egon arren, hainbat arlo ukitzen dituzte, hala nola, filosofia eta literatura. Hari moduko bat egiten dut beste diskurtso batzuetara iristeko.

Nire desioa da konbertsazio bat irekitzea, gai sozialak eta bestelakoak uztartuz, esaterako, gazteria, osasuna... Esparru diferentek aztertzen ditut; gaur egun, bakoitza bere esparruan murgilduta bizi da eta ez dago diziplinen arteko interakziorik. Ez dugu elkarrekin hitz egiten. Nire liburuak esparruen arteko konbertsazioa eta lotura bilatu nahi ditu, irakurleak, nolabait, pentsaera eta ikuspegia zabaldu ditzan.

Lizaso
dekorazioa



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48



ORIA
hortz klinika

Arrantzale kalea, 63 behea
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45

Oria Hortz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martxan.
Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre etorkizunean sor daitezkeen arazoel.

Katu
HORIA
albaitaritzza klinika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia
668 89 11 29

www.katuhoria.com



PERTSIANAK
A K O M A Z



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

URAITZ
burdindegia
jantzi-sagarriak

Endara,3 Tfn: 943 83 18 97

ur bide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4
20800 | Zarautz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

Desatascos
LASTER

688 886 536

24 orduko zerbitzua



Sagar erreka 21-A - 20590 Sorluze - Abaramendi bajo 3-20810 Orio - Tel.: 943 751 431
desatascos@desatascoslaster.com - www.desatascoslaster.com

- Hodi libratuta.
- Garbiketak presio handiko urarekin.
- Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa.
- Hodien, isurbideen eta estolderiaren iluskatzea, kamarekin.
- Uholde urak ataratzeko.
- Ezkutuko kutsatzen detektakioa.

egin zaitetz laguntzaila

Karkara
karbanario



TRANSPORTES FRIGORIFICOS

INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO



TXUKUN
LORAZANTZA, S.L.

Tel. 660 332 756 · 679 428 851

txukunlorazantza@hotmail.com

Lorzaintza
Mendiko lanak
Indusketak
Itxiturak



GARMENDIA

HIGIEZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUA

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
informacion@garmendiagestion.com



SOKA DANTZA

San Pedro jaietan, soka dantza egingo du plazan herritar talde batek; 2011an errekuperatu zutenetik, urtero dantzaten dute herriko festetan. Sokari tiraka, Koro Sarasolaren eta Eneko Dorronsororen lanaren berri jakin dugu: **Orioko dantza ondarea dokumentatzen ari dira**, adinean aurrera doazen herritarren testigantzak bideoz jasoz.

TESTUA: KARKARA

ARGAZKIAK: KUTXATEKA, KARKARA, EGIGUREN

Euskal Herrian historian zehar gehien egin den dantza soziala da soka dantza. Orion, hainbat hamarkadatan desagertuta ostean, 2011.urtean errekuperatu eta atera zuten plazara berriz hainbat herritarrek, San Nikolas jaietan; orduz geroztik, tradizioari keinu eginez, urtero egin dute festetan.

Dantzariak, banaka edo bikoteka, osatzen duten lerro, kate edo *sokan* du jatorria dantzaren izenak. Gaur egun *aurreku* izenarekin ezagutzen denak, soka dantzan du sorburua, eta adituen iritziz, azken urtetan bizitza propioa hartu du.

Orioko edadeko jendeak kontaktzen duenez, soka dantza edozein asteburutan egiten zuten, ospakizun edo jai konkretuen justifikaziorik gabe, lagunartean ondo pasa-



tzeko aitzakiarekin. Herriko kaleetan buelta egin ostean, plazan amaitzen zuten funtzioa.

Soka dantza 1942an, Kontxa irabazi ostean

Oriotarren batek gogoan izango du, ziurrenik, 1942an herriko txalupak Kontxa irabazi ostean, soka dantzarekin arraunlariei egin zitzaien ongietorria. Kutxatekatik ateratako argazkiek ondo isladatzen dute plazan izan zen giroa. Garaipena ospatzeko, kalejira, meza, aurreku, bazkaria eta festa antolatu zituzten herrian.

Ospakizun horretan, emakumeek bakarrik egin zuten





ERREPORTAJEA





dantza. Pascual Marinek eta Vicente Martinek egindako argazkietan, dantzariak zuriz jantzita ikus daitezke, soka dantzan aureskua egiten. Dantzan.eus webgunearen arabera, 1921eko Santurtziko estropadetan emakumeek arraunlariei dantzatutako aureskuaren tankerako keinuak antzeman daitezke irudietan. Bi estropaden artean 20 urteko aldea egon arren, antzeko eszenak errepikatzen dira.

Xabier Etxabek aipatutako webgunean lagatako iruzkin baten arabera, tradizio zaharraren zantzuak antzeman daitezke fotoetan: besoak jasota dantzan egiteko ohitura, espazioaren erabilera edo akademizazio urrak ematen duen soltura, aurpegietan eta gorputza kolokatzeko moduan igarri daitekeena.

Orioko dantza ondarea biltzen

Koro Sarasola eta Eneko Dorronsoro Orioko dantza solteko ondarea biltzen ari dira azken bizpahiru urtetan. Artxibo fisiko eta digitaletan erreferentzia oso gutxi topatzen zituztela-eta, herritarren ahozko testigantzak biltzeari ekin zioten, hamarkada ezberdinetako oriotarrak elkarrizketatu eta beren kontakizunak bidez jasoz.

Oraingoz, 40ko hamarkadatik 60kora bitarteko oriotzapean dituzten 50 oriotarren testigantzak jaso dituzte. *Elkarrizketatu dugun herritar zaharrenak 96 urte ditu*, argitu dute. Aurrerantzean, 70ko hamarkadatik aurrerako edukiak biltzeari ekingo diote, eta daten gertutasunagatik, informazio oparoagoa aurkitzea espero dute.

Dokumentatu dutenaren arabera, Orion, dantzari talde ezberdin asko izan dira azken hamarkadetan. Koro eta Enekoren hitzetan, herrian dantzarako afizio handia izan

da betidanik. Istorio kuriosoekin egin dute topo: *Emakume batek kontatu digunez, herriko familia aberatsetako "madrinek" dantzarako arropak ordaintzen zizkieten gaztetxoei; dantza taldeetako txistulariek, esker onez, "madrinen" urtebetetze egunean musika jotzen zieten etxepean, azaldu dute. Korok berak betidanik entzun zuenez, bana-koa gizonek bakarrik egiten zuten lehen. Elkarrizketatu batek esandakoaren arabera, gerra aurretik emakumeek ere dantzatzen zuten.*

Aurrera begira, oraindik ez dakite zer egingo duten bildutako informazioarekin; ahozko kontakizunez gain, argazki zaharrak, dantza txapelketako trofeoak, eta dantzari erreferentzia egiten dioten udal plenoetako aktak ere aurkitu dituzte. Beren hitzetan, *garrantzitsuena adinean gora doazen herritarren testigantzak lehenbailehen jasotzea iruditu zitzaigun. Gero, ikusiko dugu zer egin material guztiarekin.*

Eneko bera, dantza suelta irakasten aritzen da, eta ikasleei Orion betidanik egindako pausoak erakusten dizkie. *Dantza gehienek oinarri bera dute Euskal Herri osoan, baina hizkerarekin bezala, herriz herri aldaera txikiak izaten dira, azaldu du. Horregatik, Orioko ondare kulturalaren transmisioa ez eteteko helburuarekin ari dira lanean bi herritarrak; xede berarekin aterako dute sanpedroetan soka dantza plazara. Parte hartu nahi dutenek, Eneko edo Kororekin jarri behar dute harremanetan.*



“Ikasle baserritarren tipologia galtzear dago gurean”

Marije Zumeta eta Xabier Gaiton

Aiako Lardizabal Herri Eskolako irakasle-ohiak



Marije Zumeta eta Xabier Gaiton, ikasgela batean. A.L

Xabier Gaitonek (Pasaia, 1958) 34 urte daramatza Orion bizitzen, eta erretiroa hartu berri du. Marije Zumetak (Zarautz, 1953), aldiz, orain dela bost urte hartu zuen. Besteak beste, Lardizabal bezalako eskola txiki batean lan egiteak berengan izan duen eragina eta urte guzti hauetan ikasi eta irakatsi dutena partekatu nahi izan dute.

AINARA LASA

Beste eskola batzuetan lan egin duzue. Zer du Aiako eskolak desberdin?

M.Z. Oso eskola naturala topatu nuen hemen, ume atseginak, zeharo txunditu ninduten hasieratik. Hurbileko gurasoak eta ikasleak, oso ondo hartu gintuzten hasieratik. Gainera eskola honek badu xarma berezia, herrian bertan dago, guztia dago gertu. Txikitutasun hark erakarri ninduen hasieratik.

X.G. Herri euskaldun batekin topatu nintzen. Hona etortzea erronka izugarria izan zen niretzat. Garai hartan, euskaldun berria nintzen eta bat batean, guztiz euskaraz murgiltzeak, eraldaketa bat eragin zuen nigan. Hemen atzeman nuen benetan zer den euskaraz une oro lan egitea, aritzea, eta bizitzea. Euskaraz murgiltze prozesu natural bat topatu nuen Lardizabalen, euskararekiko maitasuna sendo bizitzeko aukera izan dut hemen hasiera-hasieratik, esparru asko barneratu eta horietan sakontzeko, hala nola, kulturaz, historian, kantagintzan... Aiara etortzeak hori guztia eman zidan; neurri handi batean, lankideei esker.

Herriaren izaerak ere badu naturaltasun horrekin nolabaiteko loturaz?

M.Z. Bizitzea gustatuko litzaidakeen bizimodu bat eman dit. Bertako hurbiltasunak, naturaltasunak eta bizimoduak betidanik erakarri naute. Umeak oso gertukoak dira. Baserri mundua ere sakonean ezagutzeko aukera izan dut hemen. Topiko asko daude horren bueltan;

baserritarren bizimodua ez da kontatu diguten bezala; eguneratuta daude alor askotan, eta Lardizabalen presentzia handia izan dute. Oro har, herri guztia inplikatu da eskola honekin; gurasoen eta irakasleen artean beti egon da konplizitatea, elkarrekiko konfiantza. Hori ez da leku askotan gertatzen.

X.G. Ikasle tipologiak hasieratik atentzioa eman zidan. Ikasle mota hori, baserritik etorritakoak behinik-behinean, desagertzen joan da, globalizazioa hona ere iritsi delako. Baserriko ikasleak izan ditugu urte askoan. Baserri-izaera eta baserriko jakinduria Lardizabalen parte izan da urte askoan. Abantailak izan genituen, asko ikasi baike nuen baserri-izaera horretatik. Baina borrokak ere izan genituen; garai hartan guraso askorentzat eskola tramite hutsa zen. Kasu batzuetan, zenbait ikasleren potentziala ikusita, baserrietara hurbiltzen ginen gurasoekin hitz egitera. Hori desagertu da, baserriaren petotasun hori galdu da dagoeneko, ez baitago apenas baserriko datorren ikaslerik.

Zer nolako eboluzio eman du hezkuntza sistemak, orduetik hona?

X.G. Baliabide aldetik bai eman da bilakaera bat, errekurtsio kopurua anitzagoa da orain. Orokorrean gizartearen eraldaketarekin batera eman da hezkuntza sistemaren aldaketa. Garai bateko irakasleak bokaziozkoagoak ginen agian; gaur egun, nolabait, profesionalagoa da irakaskuntza. Beharbada, baliabide asko izan ez arren,



Gaiton eta Zumeta, Lardizabaleko ikasle batzuk agurtzen. AL.

gure baloreak eta nahiak gehiago eta modu sakonagoan transmititzen saiatzen ginen; zer nahi genuen eta nola lor zitekeen, alde guztien ikasle, irakasle, guraso, herrian inplikazioa bilatuz. Gaur egun, akaso, erronka zailagoak dira gizartea eta errealitatea aldatu direlako. Badirudi egun gizarteak dituen arazo guztiei konponbidea ematea eskolari dagokiola. Zentzu horretan, lehen errazagoa eta naturalagoa zen dena.

M.Z. Orain muga gehiago daude umea ezagutzeko, exijentzia maila areagotu da eta ez dago halako gertutasunik. Kontuan izan behar da gaitasun eta adimen mota desberdinak daudela; ikasle guztien ikaskuntza prozesua ez da berdina. Batzuek denbora gehiago behar dute. Baina gaur egun legeak epeak ezartzen ditu, eta helburu batzuk markatzen ditu, ikasleek denbora jakin batean bete beharrekoak. Horrek presio asko dakartza, bai umean, baita irakasleengan ere. Lehen malgutasun handiago genuen, eta irakaskuntza pertsonalatuagoa zen, hurbilagoa.

X.G. Funtsean eta oinarri-oinarrian hezkuntza ez da aldatu, baliabideetan eta moduetan eman da eraldapena, baina hezkuntzan bere horretan, ez. Azkenean umea pertsona bezala hezi behar da; jakina irakasleok, besteak beste, irakurtzen eta idazten erakutsi behar diegula, baina baloreetan hezten jarraituko da. Hala espero dut behintzat.

Zein balore lehenetsi dira Lardizabal Herri Eskolan urte hauetan?

X.G. Esango nuke, errespetua, enpatia eta norberaren autonomiaren sustapena izan direla transmititzen saiatu garen zenbait balore. Era berean, nork bere burua maitatzea, eta jatorriari eustea, hizkuntza eta kulturarekiko maitasuna errotzea.

M.Z. Horiek guztiei txertatuko nieke bakoitzak bere buaruengan sinestea. Askotan baseritik etorritako ikas-

leek konplexuak izan dituzte, eta guk beren gaitasunetan sinesteko eta burua altu mantentzeko esan izan diegu, ez uko egiteko beren jatorriari. Aiako eskolan amaituta, baserriko ikasle ohi askok Euskal Herritik kanpo egin dituzte haien goi-ikasketak. Agian gazteleraz hitz egiteko zailtasuna izango zuten hasieran, baina baloreetan eta ezagutzetan oso ongi prestatuta irten dira.

Zuen erreleboa hartu duten irakasleentzat, gomendiorik baduzue?

M.Z. Bokazioari jarraitzea; lana bizi eta sentitu behar duzu. Lanera ilusioarekin etortzea gomendatuko nieke, haurren artean gustura egotea. Ni ez naiz sekula gogorik gabe etorri lanera. Bokazioan dago gakoa.

X.G. Gogoan har dezatela, klaseak emateaz aparte, eskolan badaudela hainbat ardura eta zeregin denon artean ezinbestez aurrera atera beharrekoak eta inplikazioa eskatzen dutenak, nahiz eta horretarako prestakuntza berezirik ez izan. Tutore eta IKT-ko arduraduna izateaz gain, igarotako 33 urte hauetatik 22tan zuzendaritza taldean ere aritu naiz. Lankidetzaren ezinbestekoa da, baita irakasleen moldakortasuna ere. Historikoki hemen denok denetik egin izan dugu. Bestalde esango nieke ahalegintzeko eskolak betidanik izan duen izaera hurbil eta lan-giro atsegina mantentzen.

Aztarnarik utzi du Lardizabalek zuengan?

X.G. Pentsa zer nolako aztarna utzi didan, 85-86 ikasurtean sartzean, Javier zen nire izena, eta orain denek Xabier deitzen didate, eskolan lankideak hasiera hasieratik hala deitzen hasi zitzaizkidalako. Izenak bidea egin zuen, eta nire identitatearen zati da jada.

M.Z. Nigan utzi duen aztarna sekulakoa da. Urte hauetan guztietan egin ditudan giza harremanak estuak izan dira. Zoriontsu izan naiz irakasle eta pertsona bezala Aian. Hori da Lardizabal Herri Eskolak utzi didan aztarna ederrena.

Euskaraldiaren trainerua, prest!



Pasa den ekainaren 2an aurkeztu zen Euskaraldiaren Orioko hamalaukoa herriko plazan. Jon Agirresarobek gidatutako ekitaldian Euskaraldia ariketan parte hartuko duten hamalau *ahobiziek* eta *belarriprestek* hartu zuten hitza.

Orion Euskaraldia antolatzen ari den lantaldeak erabaki zuen ekimenaren aurpegia osatuko dutenen tal-

dea ez izatea hamaika lagunekoa, baizik eta hamalaukoa. Traineru bat osatzea, alegia, patroiz eta guzti.

Orioko hamalaukoa herriko hamalau lagunek osatuko dute, Euskaraldian *ahobizi* edo *belarriprest* izatea dagoeneko erabaki dutenak.

Ondoko hauek osatzen dute euskaraldiaren aldeko traineru oriotarra:



Nadeth Agirre Arruti, ahobizi

Ikuspegia aldatu behar dugu euskararekin: alde egotetik egitera pasatu behar dugu. Hizkuntza ohiturak aldatzea da kokxa eta, horretarako, entrenatu egin behar dugu. Taldean entrenatzen bagara, errazago izango da.



Josi Roig Fàbregas, belarriprest

Ez zait gustatzen jendeak hizkuntza aldatu behar izatea negatik. Horregatik eskaini dut nire burua belarriprest izateko. *¿Dejar de hablar euskera por mí? De cap manera! Si no lo habláis vosotros ¿quién lo hará?*

**Bakartxo Begiristain Puertas**, belarriprest

Nik ia dena ulertzen dut, eta hitz egiteko ere gai naiz, nahiz eta batzuetan lotsatu. Batzuek erdaraz egiten didate, ulertuko ez dudalakoan. Euskaraldia aukera ona da oriotarrek jakiteko nirekin lasai egin dezaketela euskaraz.

**Jaime Colado Gutierrez**, belarriprest

Nik dena ulertzen dut euskaraz, eta hitz egin ere bai, dezente baino gehiago. Hala ere, erdaraz egiten didate askok futbolearen eta kalean. Belarriprest gisa izena eman dut Euskaraldian, jendeak ohitura hartu dezan niri euskaraz egiteko.

**Maria Jesus Elortza Lekuberrieta**, ahobizi

Euskaraz ondo egiten ez duenari zuzenean gaztelaniaz egiten diogun bakoitzean, ez diogu euskarari laguntzen. Euskaraz eginda, berriz, konfiantza eta gogoia piztuko diogure kultura ezagutze-ko. Eta kulturak beti dira aberasgarri.

**Miguel Miera Garcia**, belarriprest

Euskara ikasteko bidea gozoa izan da eta merezi izan du; eta orain praktikan jarri behar dut. Askok erdalduntzat naukate oraindik eta inork ez badit euskaraz egiten, nola ikasi? Euskaraldiak lagunduko dit horretan.

**Marijo Salsamendi Goñi**, ahobizi

Gure inguruko jende askorekin aldatu dezakegu ohitura, eta euskaraz egiten hasi. Nik saiakera hori egingo dut azaroaren 23tik abenduaren 3ra: 11 egun euskaraz biziko ditut eta euskaraz egingo diet ulertzen duten guztiei.

**Amayi Loidi Iraola**, ahobizi

Ohituragatik-edo lehen hitza erdaraz egiten didate askok eta frustrazio-puntu bat eragiten dit horrek. Ahalegina egiten ari naiz, euskara hobetzeko eta Euskaraldiak lagunduko dit euskaldun gisa agertzen. Ilusioz nago.



Elena Baylin Zaldúa, belarriprest

Euskara ikasten ari naiz; baina zaila da lortzea lagunek niri euskaraz egitea, askori arraroa egiten zaio-eta. Euskaraldian, ordea, *belarriprest* txapa soinean eramango dudanez, errazago egingo didate euskaraz.



Oihan Gozategi Urbietta, ahobizi

Gure aurrekoek egiten zuten bezala egiten dugu guk euskaraz: natural. Guretzat erraza da Orion euskaraz egitea; baina denontzat ez da hala gertatzen eta laguntzeko prest nago ni, *ahobizi* gisa.



Richard Diatta, belarriprest

Oriera etorri nintze-nean, garbi ikusi nuen, hemen bizitzeko, euskara ikasi behar nuela. Pixkanaka ari naiz ikasten eta zuek niri euskaraz egitea oso ondo etortzen zait. Dagoeneko asko ulertzen dut eta hasita nago hitz egiten.



Leire Fernandez Elgorriaga, ahobizi

Zergatik ez? elkarteko lagunekin ikasi dut zenbaterainokoa den taldearen indarra. Bakarrik ezinezkoa ematen duena, askoz errazagoa da taldean, lagunenez inguratuta. 11 egun euskaraz? Egin dezakegu eta egingo dugu.



Miren Etxeberria Guridi, ahobizi

Askok uste du nahikoa dela euskararen alde daudela esatearekin. Egiten duguna baino askoz gehiago egin dezakegu euskaraz, Orion ia jende guztiak ulertzen duelako. Gehienetan, gure erabakia da.



Iñigo Exposito Murillo, ahobizi

Niri erabat euskaraz bitztea gustatuko litzaidake Orion: nire egunerokoan, etxean, kuadrillan, kirola egitean... eta beste hizkuntza batzuk ere jakin eta poltsikoan izatea, behar ditudanerako, munduan barrena ibiltzeko...



LARDIZABAL AIAKO HERRI ESKOLA

*“Errementari” ipuin bat bezala ikusi behar da”***Aran Aldai**

“Errementari” filmaren grabaketetan parte hartu zuen eskolako gurasoa

Zeini bururatu zitzaion *Errementari* pelikula egitea?

Mitologia oso gustuko duen Paul Urkijo zuzendariari okurritu zitzaion.

Aiako zenbat pertsona ateratzen dira pelikulan?

Bost aiarrek hartu genuen parte grabaketan.

Zer moduzko esperientzia izan zen?

Oso bitxia eta polita. Jende askorekin harremana izateko aukerarekin, gainera egun horietan lokalizazio edo toki ederretan egon ginen grabatzen: Agorregi, Aizpurutxo... Iluminazioa ere oso berezia zen. Zuek imajinatu bat-batean ipuin batean sartzen zaretela mozorrotuta eta jolastera. Bada, halaxe.

Zenbat egunetan joan zinen grabatzera?

9 egunez. 5 Agorregin, 2 Aizpurutxon eta beste biak Itsason eta Muskizen.

Grabazioak luzeak izaten al ziren?

Beno, janzten eta makillatzen hasten genetik grabazioak bukatu arte 12-13 ordu ematen genituen, tarte batzuetan zain, disfrutatuz besteei begira.

Zer sentitu zenuenean zure aurrean kamara handi bat izanda?

Hasieran nik uste nuen urduri egongo nintzela, baina jolas horretan sartzen zarenean, mozorrotuta... Istorian murgilduta... Kamara ikusi ere ez duzu

egiten.

Ondo moldatu al zinen beste lankideekin?

Bai, oso lan-giro ona egon baitzen, zuzendaritik hasita, kameralariak, produktioakoak... Figuranteon artean oso giro polita egon zen. Aktore nagusiak ere: Kandiko Uranga, Josean Bengoetxea, Itziar Ituño, Eneko Sagardoy oso pertsona jatorrak dira. Grabatzen geundenean ondo, eta gero hortik kanpo ere giro ezinhobea zegoen. Niretzat opari bat izan zen aukera hori.

Zuretzat zein da pelikularen momenturik onena?

Asko izan baziren ere, nik bizi izan-dakoetatik Eneko Sagardoy (deabrua) jotzen dugunean, energia asko mugitu zen hor, oso une potentea izan zen.

Guri gomendatuko al zeniguke filma?

Bai, noski. Egia da bortizkeria dezentere azaltzen dela, baina historia, ohiturak eta umorea ere dauka. Bada, *Errementari*, pelikula bat ipuin bat bezala ikusi behar dena. Hala eginez gero, merezi du ikustea.



Axel Lizeaga

Eskola kirola

Eskola desberdinetako ikasleak (nahi dutenek) eskola kirolean ibiltzen dira eta gai horri buruz nire iritzia azalduko dizuet ondorengo testuan.

Sexu banaketa. Kurtso guztietan mutilak neskengandik banatzen dituzte eta hortik aurrera ere: profesioetan, esate baterako, gizartean dagoen matxismoaren eredu garbia. Adibidez, emakumezkoen partidak ez dira jokatzen estadioetan, bigarren mailako gizonezkoek jokatzen duten zelaietan baizik.

Gurasoen presioa: guraso askok partida erdian zer egin behar dugun esaten digute, entrenatzaileak izango balira bezala. Presio hori ikusita, umeek pentsatzen dute partida oso garrantzitsua dela eta galtzerakoan oso haserre jartzen dira. Beraien buruarikiko presioa nahiko zigor ez balitz, gero gurasoak jasan behar dituzte.

Kirol motak: eskola kirolean futbola, saskibaloia eta eskubaloia eskaintzen zaio denbora gehien, beste kirolak gutxietsiz.

Sexu banaketa dago eskola kirolean, kurtso guztietan mutilak neskengandik banatzen dituzte

Kofradiaren eta Dikearen etorkizuna



Orioko kofradia zaharra. KARKARA

Orioko Dikearen eta kofradia zahararen etorkizuna zehazteko asmoz, egitasmo bat aurkeztu zen joan den maiatzaren 21ean Udalean. Proposamena, zehazki, Kofradia zaharreko eta Dike eremuko jabeek osatzen duten Adostasun Batzordeak luzatu zion Udalari. Dikean, kale nagusi bat sortzea eta egituratzea planteatzen da, harreman komertzialak sortzeko xedez.

Egitasmo horrekin, *Kofradia zaharra eta Dikearen eremuari ingurumen-izaera* emango zaiola usten du batzorde horrek: *Erriorearen ondoko pasealekuaren erabilera hobetuko da, zonalde hori lorategi publikoekin osatuz.*

100 etxebizitza egiteko aukera

Proposamen berri horrekin, *etxebizitza babestu gehiago* izango direla zehaztu dute batzordetik. 2.384 metro koadroko eremua izatetik 8.974 metro koadrokoa izatera igaroko da eremua, 100 etxebizitza eraikitzeo aukera emanez. Aurrez egindako proposamena baino %3,75

etxebizitza gehiago izango liratekeela jakinarazi dute. Lorategidun eremu zabalak egitea ere aurreikusi du Adostasun Batzordeak, lur azpian aparkaleku publikoak eraikitzeo. Ekipamenduetarako, komertzioetarako eta Alde Zaharrerako irisgarritasuna hobetu nahi dute aparkamenduen bitartez. Donostiako Alderdi Eder inguruko lorategia dute erreferentziatzat batzordekideek.

Ekipamendu publikoak

Instalazio publikoetarako udal txerearen lagapena 1.000 metro koadrokoa izango da Dike eremuko kale nagusian, eta 900 metro koadroko partzela izango dute, nahi badute ekipamendu publiko bat eraikitzeo.

Baina, Dikeko eremua ez ezik, Adostasun Batzordetik kofradia zaharrari eta inguruari ere irtenbide bat emango diotela azaldu dute. Arrantzale Kalea ibilgailuentzat irekiko dute eta saneamenduari irtenbide bat emango diote, bai kofradian eta baita portuan bertan ere.

Kofradiako eraikin berriak 2.000 metro koadroko azalera izango dela jakinarazi dute, horietatik 1.600 utziko dizkiote udalari. Lagapenari esker, kofradiaren iraunkortasuna ahalbidetzeko baliabideak izango dituztela uste dute Adostasun Batzordeko kideek.

Alde guztien onespena

Jabe pribatuek eta beren talde juridikoez (Adostasun Batzordea) aho batez onetsi zuten asanbladan Dikerako eta kofradiarako proposamena. Jose Angel Zaldua alkatea, ordea, abstenitu egin zela gogora ekarri dute.

Orain plataformaren, EH Bilduren eta PSE-EEren babesasuna jaso zuen proposamenak, eta babes horrek, alderdien esanetan, *proiektua gartztea eta larrialdiz kofradiari konponbide bat ematea ahalbidetuko du.*

**Erantzun egokiaren bila**

Orioko EAJk urteak daramatza Kofradiaren eraikinari irtenbide bat bilatzeko ahaleginetan. Horren adibide da orain urte batzuk sinatutako hitzarmena. Egia da, gaur egun hitzarmenaren baldintzak ez direla betetzen, baina orduko izpirituan sinesten jarraitzen dugu eta, ondorioz, hitzarmen berri bat sinatzeko aukerak lantzen gabilta. Hau horrela, Dike eremuari lotuz eman nahi diogu irtenbidea Kofradiari. Baina udaletxean denok herria bere osotasunean aztertu behar dugu, ondorioak bere osotasunean baloratu eta honen guztiaren arabera, hartu behar ditugu erabakiak. Zenbat biztanleko herria nahi dugu? Herrian ditugun zerbitzu eta ekipamenduak, kalitatezkoak izaten jarraitzeko, zenbatentzat daude aurreikusita? 250 etxebizitza nahi ditugu Dike eremuan? 6 altuerako etxe bizitzak nahi ditugu errioiari begira? Orioko EAJren ustez, gunee berrietako dentsitateak ez luke orain artekoak baino handiago izan behar. Nortasun handiko herri txiki bat gara eta ez dugu *Manhattan* bat nahi gure herrian.

**Orain****Ezin da aukera hau galdu**

Kofradiaren egoera tamalgarria denon begi bistan dago eta urte luzeetan egin diren ahaleginak hutsean gelditu direnez, ezin da Dikerekin batera dagoen proiektua aurrera ateratzeko aukera galdu. Herriaren nortasuna babesteko, nahiz eta Kofradia eta Mutiozabal eraikinak udalaren jabetzakoak ez izan, eraikin historikoak mantentzearen aldeko ahalegin guztia egingo genuela azpimarratu genuen 2011n, udaletxean sartu berritan. Azken urteetan, denon adostasunarekin, aurrera ateratzen ari gara Mutiozabal. Gaur egun, itsasoko lanekin lotuta gelditzen zaigun ondare kultural bakarrenetako dugu Kofradia. Saiakera asko egin dira eta une honetan Dike eremuarekin lotuta egin den proiektuak babes eta adostasun asko ditu. Une erabakigarriak dira eta espero dezagun adostasun osoa izateko falta diren gutxiak ere bat egitea proiektuarekin.

**EH BILDU****Babes osoa Kofradiari**

Aitortu eta txalotzen dugu, bere etorkizunari begira eta bere eraikinaren hondamendi egoerari irtenbide bat bilatu nahian, kofradia egiten ari den lan guztia. Bizirik eta etorkizunari begira dagoen seinale da hori, eta oso berri pozgarria da herriarentzat eta herritarrentzat. Arrantzak garrantzi handiko sektorea izaten jarraitzen du Orion eta eragin zuzena du herriko beste sektoreetan ere. Kofradia berri batekin batera, gunee berean aukera izango genuke ekipamendu mailan herrian ditugun premiak asetzeko: aretoa, turismo bulegoa...

Horretarako, hitzarmen bat egin beharko luke Orioko Udalak Kofradiarekin. 2018ko martxoaren hasieran Kofradiak bidali zion Udalari proposamen bat. Udalaren gehiengo osoa hitzarmen proposamen hori bultzatzearen aldekoa izan arren, EAJren erruz, oraindik ez dute erantzunik. Kezkatzekoa benetan.

**PSE-EE****PSE-EE****Kofradiaren arazoari, irtenbidea**

Oriotar gehienak, kofradiako eremuaren degradazioa ikusita, konponbidea eskatzen dute aspalditik. Ez dugu ulertzen Udalak, urte guzti hauetan, zona horren gainean ezer egin ez izana. Orioko PSE-EEK dike-kofradiako proposamena babestu du hasieratik, argi daukagulako hori dela arazoaren behin betiko konponbidea. 2017ko ekainean, kofradia Dike proiektuaren barnean sartzeko babestu genuen gure bozarekin. Ondoren, publikoki ere proposamena defendatzen jarraitu dugu. Proposamen hori gauzatzeko Udal gobernuaren esku dago (Orioko EAJ); berak eman behar du udalbatzarrerara kofradia Dikeko proiektuan txertatzeko proposamena. Kofradiarekin akordio berria ere lortu behar dute; hau sarri eskatu diegu 2017an eta 2018an egindako hirigintzako hainbat batzordetan. Azkenik, Dikeko jabeen eskerrak eman nahi dizkiegu erakutsi duten eskuzabaltasunagatik eta kofradia beren lurretan sartzeko baimena emateagatik; Orioren arazoak konpontzen laguntzeko borondatea erakutsi dute.



Patinetan aritzeko hainbat ikastaro eskainiko dira uztailean Orion



Zarauzko Iristaketa Elkartek patin ikastaroa antolatu du datorren uztaile-rako Orioko Udal Pilotalekuan. Haur eta helduentzat, maila guztietara egokitu-tako saioak egingo dira. Ikasturte osoan zehar ere hainbat saio eman dira Orion eta jende ugari gerturatu da informazio eske, Iristaketa Elkartetik adierazi dutenez. Hori dela eta, uztailean ere pertsona orori zuzendutako saioak eskainiko dituzte. Ikastaro guztiak Orioko Udal Pilotalekuan izango dira, uztaileko astearte,

ostegun eta larunbatetan. Mailaren arabera bidegorrira irtenaldiak ere egingo dira.

Hiru ikastaro antolatu dira:

- Uztaileko 1. hamabostaldia: 6 ordu -

50€

- Uztaileko 2. hamabostaldia: 6 ordu -

50€

- Ikastaro osoa, uztaila osoan zehar: 12

ordu - 90€

Ikastaro bakoitzean maila ezberdinak eskainiko dira (maila bakoitzak bere ordutegia du):

- Helduak - Oinarriko maila: lehen aldiz patinak janzen dituenarentzat edo oreka mantentzeko arazoak dituenarentzat.

- Helduak - Hastapena: oso kilometro gutxi egindakoentzat, frenatzen, errebueltetan eta aldapatan justu dabiltenentzat.

- Helduak - Hobekuntza: takoarekin frenada ona dutenentzat. Atzeraka patinatzen edo gurutzatzen ikasi nahi dutenei zuzendua-

- Haurrak: Ikastaro hauek 2004. eta 2012. urte bitartean jaiotako haurrentzat dira. Helburua patinen gainean ondo pasatzea da, ez dakienak ikasiz eta dakienak trebezia berriak eskuratuz, diote ZIE-tik.

Ikastaroetan izen-ematea egiteko bi aukera daude:

1. Whatsapp idatziz 669837409 zenbakira informazio eske.

2. E-posta idatziz:

zkeirristaketa@gmail.com.

Gizartea

Hondartza denboraldian, 'prebentzioa' eskatzen dute sorosleek



Gurutze Gorriko sorospen zerbitzua martxan da Orioko Antilla hondartzan. Udaldi osoan zehar, hainbat sorosle arduratuko dira hondartzaren eta bainularien zaintzaz.

Gurutze Gorritik prebentzioak duen garrantzia nabarmendu nahi dute: "oso garrantzitsua da banderen koloreak errespetatzea, sorosleen aholkuak jarraitzea eta sorospen ordutegitik kanpo bainurik ez hartzea, istripurik ez gertatzeko".



1085 ORIOTAR, GIZA KATEAN

Pasa den ekainaren 10ean 1085 oriotarrek parte hartu zuten Gure Esku Dagok antolatutako giza katean. Baliza elkarteak eskerrak eman dizkie ekimenean izan ziren herritar guztiei. Hala, 1000 lagundik gora elkartu ziren Orion erabakitze esku-bidearen alde, aurreikuspenak gaindituz.

Antolatzaileen erronka 1000 lagun biltzera iristea zen, eta zenbatuaren arabera, 1085 izan ziren Orioko bi kilometroak osatzera hurbildu diren oriotarrak zein aiarrak. Orioko Gure Esku Dago-ko kideek azaldu dute *uste baino askoz hobeto* joan dela guztia, eta eskerrak eman dizkiete parte hartu zuten herritar denei.



Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

AZOKA

Alokairua

- Etxea alokagai Orio erdigunean, 4 logela ditu eta oso argitsua da. Epe mugaturako izango da. Tf: 647576763
- Garaje itxia alokagai Anibarko Portuan. Tf: 649228787
- Logela alokagai Orion. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tf: 652551507

Salgai

- Duplex-a arrantzale kalean. 3 logela, 2 komun, terraza eta garaje itxia. Goiko solairura igotzeko eskailera batzuk ditu. 15 urteko etxebizitza. 395.000€ Tf: 648820190
- Aiako aurtengo in-txaurrak salgai: 4 kilo 22€, tamaina onekoak, etxera eramanda. Pati deitu: 943132131 edota 634410993
- Salgai: Aiako babarrun beltza saltzen da, 5€/kiloa. Tf: 636312231

Lan eskaera

- Mutil gaztea lan bila dabil adineko jendea zaintzeko. Orduko egin-go nuke lan. Erizaintza eta garbiketa ezagutza eta tituluak ditu.
- Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638730544.
- Lan bila nabil, etxe barnean eta kanpoan egiteko: haur eta helduen zaintzan, ospitalean konpainia egiten... Gazteleraz, arabieraz, eta euskaraz zerbait dakit. Tf: 612488307
- 16-17 urteko mutil oriotar bat lan bila. Udan, umeak zaintzeko prest. Urte osoan zehar, klase partikularrak LH6-tik beherako haurrei Tf: 600321937
- Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinekoen zaintza, garbiketa lanak. Astebu-

ruetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia duena eta erreferentziakin. Tf: 661133295

- Neska bat lan bila. Esperientzia zabala adinekoen zaintzan eta garbiketa lanetan. Pape-rak behar bezala ditu. Tf: 674123293
- Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta klase partikularrak emateko. Lehen hezkuntzan graduatua. Umeekin esperientzia handikoa. Tf: 636312231

Hezkuntza

- Ingeleseko saioak. Arratsaldetan uztailan eta abuztuan. Bertako irakasle tituludunak, taldean eta bakarka. Prezioak kontsultagai. Gareth: 627389285 edo garethross@msn.com; Jenny: 697258509 (jensaross@yahoo.com)

ITSASOA

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	06:57 eta 19:11	01:02 eta 13:12	☉
02	07:33 eta 19:48	01:40 eta 13:49	☾
03	08:11 eta 20:27	02:18 eta 14:28	☾
04	08:54 eta 21:11	03:00 eta 15:11	☾
05	09:43 eta 22:02	03:46 eta 16:01	☾
06	10:41 eta 23:03	04:38 eta 16:58	☾
07	11:48 eta ____	05:38 eta 18:02	☾
08	00:10 eta 12:53	05:41 eta 19:08	☾
09	01:14 eta 13:52	07:43 eta 20:11	☾
10	02:11 eta 14:43	09:40 eta 21:09	☾
11	03:03 eta 15:30	09:34 eta 22:03	☾
12	13:52 eta 16:16	10:25 eta 22:55	☾
13	04:39 eta 17:02	11:14 eta 23:45	☾
14	05:25 eta 17:47	12:02 eta ____	☾
15	06:13 eta 18:35	00:34 eta 12:51	☾
16	07:02 eta 19:24	01:23 eta 13:40	☾
17	07:54 eta 20:15	08:51 eta 21:22	☾
18	08:45 eta 21:11	02:14 eta 14:30	☾
19	09:48 eta 22:13	03:06 eta 15:23	☾
20	10:55 eta 23:21	04:01 eta 16:21	☾
21	12:05 eta ____	05:00 eta 17:24	☾
22	00:32 eta 13:15	06:05 eta 18:34	☾
23	01:40 eta 14:16	07:10 eta 19:42	☾
24	02:39 eta 15:09	08:11 eta 20:43	☾
25	03:30 eta 15:54	09:04 eta 21:33	☾
26	04:14 eta 16:33	09:49 eta 22:17	☾
27	04:53 eta 17:09	10:28 eta 22:55	☾
28	05:29 eta 17:44	11:05 eta 23:31	☾
29	06:04 eta 18:18	00:06 eta 12:15	☾
30	06:38 eta 18:53	00:41 eta 12:50	☾

ZAINZAKO BOTIKAK

UZTAILA:

- 1ean, Gallo.
- 2an, Etxeberria.
- 3an, Larrañaga.
- 4an, Iturria.
- 5ean, Gaminde.
- 6ean, Gallo.
- 7an eta 8an, Etxeberria.
- 9an, Larrañaga.
- 10ean, Iturria.
- 11ean, Esparza.
- 12an, Gallo.
- 13an, Larrañaga.
- 14an eta 15ean, Zulaika.
- 16an, Etxeberria.
- 17an, Izpizua.
- 18an, Gallo.
- 19an, Iturria.
- 20an, Zulaika.
- 21ean eta 22an, Iriarte.
- 23an, Iturria.
- 24an, Gallo.
- 25ean, Gaminde.
- 26an, Zulaika.
- 27an, Iriarte.
- 28an eta 29an, Esparza.
- 30an, Gallo.
- 31ean, Etxeberria.

- **Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943133183 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943832398 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943832970 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943133814 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943830936 Orio
- **G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943134019 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943132983 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz



Orio

Dantza

- Ekainaren 23an, larunbatean, 'Arinmak' izeneko dantza emanaldia eskainiko du Harribil dantza taldeak, 22:00etan Karela kiroldegian eskutik.

Arnibarko Jaiak

- Ekainaren 22an eta 23an.

San Pedro Jaiak

- Ekainaren 28tik uztailaren 1era bitartean, sanpedroak (ikus egitaraua).

Erakusketak

- Uztailaren 16tik irailaren 14ra bitartean, Manuel Fernandes eta Miguel Uztailaren eskultura zein margo erakusketa, kultur etxeko areto nagusian. Orduetgia: 10:30-13:00 (goizean), 18:00-20:00 (arratsaldean).

Eusklabo Alaiak

- Uztailaren 12an, 18:00etan, kultur etxeko areto nagusian, Eusklabo Alaiak komikiaren aurkezpena eta mintzaldia Asisko Urmenetaren (egile) eskutik.

Bisiguaren Festa

- Uztailaren 12tik 15era, Bisiguaren Festa (ikus egitaraua).

Zergatik Ez?

- Emakumeen arraun erronka uztailaren 12tik 15era.

Kultur Etxea

- Udako ordutegia (09:00etatik 14:00etara).

Kultur Etxea

- Udako ordutegia (irailaren 14ra arte): 08:00etatik 14:00etara. Abuztuaren 6etik 31era kultur etxea itxita egongo da.

Aia

San Pedro Jaiak

- Ekainaren 28an, ostegunean, sanpedroak Elkano eta Andatza auzoetan.

Udalekuak

- Uztailak 2tik 27ra, haur udalekuak.

Zirkua

- Gure Zirkua, uztailaren 5etik 8ra arte.

Musika

- Kontzertuak Zingira kanpinean, ostialero arratsaldeko 19:00etan. Oraingo konfirmatuak: ekainaren 29an Giranize taldea; uztailaren 13an Frank Blackfield y Banda; 20ean, Hillbilly Jokers; eta 27an, Tormenta en el Jardín.

Ocean Club

terraza berriro irekita uda honetan

Dj, musika zuzenean aste bururo



SAN PEDRO JAIK MENUA 2018

VILLA ANTILLA
HOTEL & THALASSO

Iberiar taula

Txipiroi eta otarrainxka entsalada epela mango ozpin-olioarekin

Otarrainxka konfitatua itsaski kremarekin

Txangurroz beteriko legatza txef-aren goarnizioarekin
eta/edo

Galiziar txuleta Gernikako piper eta patatekin

Gazta tarta basoko fruituekin
edo

Ogi-torrada karamelizatua Idiazabal izozkiarekin

Erreserbak 943 89 21 02
reservas@villaantilla.com
Informazio gehiago
nahi izanez gero:
www.villaantilla.com

27,50 € (ogia, edaria eta BEZ-a barne)
35,00 € (haragia+arraina)

